

ZARAUTZ / Guztira 1.079 dokumentu jaso dira Sanz Enean egindako liburu bilketan

ZARAUTZ. DV.

ELAN-Euskadi eta Saharautz, Gobernuz Kanpoko Erakundeek (GKE, ONG), apirilean, liburu protagonista izan zen hilabetean, liburu bilketari ekin zioten.

Sanz Enea Liburutegiak bilketa horretan parte hartu zuen eta bildutakoa aipatutako GKE-en artean banatu zuen. Beraz, liburuak, zein CD, VHS, DVDekin beste herriko biztanleei laguntzeko prest egon zirenek liburutegira ekarri zituzten.

Aurtengo kanpaina arrakastatsuena izan da. Liburutegiko irakurleek horrela eskatuta kanpainak maiatzaren 15a arte iraun du.

Dakizuenez, ELAN-Euskadi taldekoek bildutakoa Cuba eta Hegoaldeko herrietara bidaliko dute. Aurten ere, Saharautz Elkartasun taldeak kanpainan parte hartu du eta bildutakoarekin hainbat garaitan bigarren eskuko merkatuak jarriko dituzte.

Sanz Enea Liburutegian guztira 1.079 dokumentu bildu dira, horietatik 994 liburu, ipuin eta entziklopediak izan dira eta beste 285, berriz, ikus-entzunezkoak (CD, VHS, DVD, DC-ROM).

Sanz Enea Liburutegitik, ELAN-Euskadi eta Saharautz Elkartasun taldearen partez eskerrak eman nahi dizkie, bilketa honen bidez beste herri batzuetako biztanleei laguntzeko prest izan diren guztiei.